BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

953

AGINDUA, 2012ko otsailaren 8koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, 2012-2013 ikasturtean Oxford-eko Unibertsitateko St Antony´s College bisitatuko duten ikertzaileei laguntza bat emateko Aukeratze Batzordearen osaketa izendatzen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2011ko azaroaren 8ko Aginduaren bidez dirulaguntza bat deitu zen Oxford-eko Unibertsitateko St Antony´s College bisitatuko duten ikertzaileentzat. Aginduak, 7. artikuluan, hau xedatzen du:

1.– Eskaerak aurkezteko eta, behar izanez gero, zuzentzeko epeak bukatu ondoren, ondorengo kideek osatutako aukeratze-batzorde batek bere gain hartuko du eskaerak ebaluatzearen eta dirulaguntza jasoko duen pertsona aukeratzearen ardura:

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak edo eskuordetzen duen pertsonak. Batzordeburu gisa jardungo du.

b) Oxford-eko Unibertsitateko Azterketa Europarren Institutuko zuzendariak edo eskuordetzen duen pertsonak. Kalitateko botoa izango du.

c) Akordio honen diziplinetan esperientzia zabala duten bi, gehienez ere, aditu akademikok, St Anton'y Collegeko Azterketa Europarren Ikastegiko zuzendariak eta Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak hurrenez hurren aukeratuak.

Horren arabera

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Irakasle hauek izendatzea, 2012-2013 ikasturtean Oxford-eko Unibertsitateko St. Antony´s College bisitatuko duten ikertzaileei dirulaguntza bat emateko Aukeratze Batzordeko kide gisa:

– Pedro Luis Arias Ergueta jn.

– Jeremy MacClancy jn.

– Elena Iñarra García and.

– Jan Zielonka jn.

2. artikulua.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunean sartuko da Agindu hau indarrean.

3. artikulua.– Aukerako birjartze-helegitea jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari administrazio-bideari amaiera ematen dion agindu honen aurka, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-helegitea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunean kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 8a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.